



ErNE , ELA, ESAN, SIPE eta EUSPEL, Ertzaintzaren ordezkari sindikalak, 2012ko otsailaren 29an batzartuak, ondorengo akordioetara iritsi gara:

1.- Burutuko diren mobilizazioetan parte hartzera deitzen ditugu Ertzaintzako langile guztiak beraien ezadostasuna azaltzeko soldata eta eskubideen murrizketa honen aurrean.

2.- Departamentuak eta sindikatoek adostutako akordioa errespetatzeko eskatzen da lehenik eta behin: sinatutako akordioa errespetatzeko dago! . Honen harira eskatzen duguna da: 9/2012 dekretua eta hau garatzen duen gidalerroa bertan bera geratzea, "900" zerbitzua kentzea eta lan egutegi berriak ezabatzea.

3.- Antola daitezken mobilizazio guztiekin bat egiten dugu, beti ere lan eskubideen eta soldata murrizketen kontra antolatuak badira. Grebarako eta lanerako eskubide osoak bete daitezen eskatzen dugu eta horrela jakinarazten diogu ertzaintzako langilegoari.

4.- Ondorengo ekimenak antolatu ditugu aipaturiko eskubideak errespetatuak izan daitezen aldarrikatzeko: **Manifestaldia** Bilbon 2012ko martxoaren 27an. Manifestaldiko leloa: " MURRIZKETARIK EZ – INPOSAKETARIK EZ / NO A LOS RECORTES – NO A LAS IMPOSICIONES; **itxialdia** Erandioko makrokomisaldegian delegatu sindikal guztiek 2012ko martxoaren 29an.

Publiko egingo da komunikatu hau eta Eusko Jaurlaritzako Barne Saila gure aldarrikapenen jakitun egingo dugu. Ez dugu parte hartuko negoziazioetan Barne sailarekin murrizketa hauek guztiak ez badira ezabatzen.

Bilbon, 2012ko otsailaren 29a